



Eneko Carretero hirugarren Espainiako Zailtasun Eskaladako Kopan eta guztira 15 finalista Euskadiko selekzioak

- *Irati Zabala 3. Sub20an, eta Andoni Esparta 2. Sub18an, izan dira Zaragozan domina lortu duten beste bi eskalatzailleak*

2018ko ekainak 11. Espainiako zailtasun eskaladako Kopa emaitza onekin hasi dute euskal ordezkariak. Zaragozan jokaturako probetan hiru domina irabazi dituzte: absolutuan brontzea Eneko Carreterok, Sub20an Irati Zabalak ere brontzea, eta Sub18an zilarra Andoni Espartak. Eta azpimarragarria da finalista kopurua: kategoria guztietako finaletan izan dira euskal ordezkariak, guztira 15.

Absolutua	
1. Ramon Julian (Catalunya)	1. Helena Aleman (Catalunya)
2. Javier Cano (Extremadura)	2. Rut Monsech (Catalunya)
3. Eneko Carretero	3. Muriel Ruiz de Larramendi (Nafarroa)
6. Andoni Esparta	5. Zuriñe Arrue
7. Bittor Esparta	
8. Martin Urrutia	
9. Iñaki Arantzamendi	
18. Eder Lomba	
Sub 20	
1. Jorge Díaz Rullo (Madrid)	1. Muriel Ruiz de Larramendi (Nafarroa)
6. Martin Urrutia	3. Irati Zabala
Sub 18	
1. Alberto Ginés (Extremadura)	1. Ana Belen Argudo (Madrid)
2. Andoni Esparta	6. Aitziber Urrutia
4. Eneko Carretero	14. Iزارo Azkue
Sub 16	
1. Cedric Junqué (Catalunya)	1. Miranda Cid (Catalunya)
4. Joanes Esparta	6. Haizea Oses
5. Aimar Uson	13. Lucia Arlanzon
7. Martzel Vicario	17. Ilia Uriarte

Zaragozako Dock 39 rokodromoan larunbat eta igande egin ziren lehiaketak. Maila absolutuan **Eneko Carreterok** behin berriro erakutsi du maila bikainean dagoela hirugarren sailkatuz. Ramon Julianek enegarren aldiz irabazi zuen txapelketa, eta harekin batera Javier Cano Espainiako bloke txapelkunak ere beste puntu bat erakutsi zuen, beraz hirugarren postua zen helburua eta zumaiaarak bikain erantzun zion erronkari. Blokean, aurreko asteburuan 5. sailkatu zen Europako Gazte Kopako Herbeheretako proban, eta Espainiako Txapelketan 5. sailkatu zen maiatzean, eta sokatik zintzilikatuta ere boladan jarraitzen du.



Euskal selekzioak handia egin zuen maila nagusiko finalean bost ordezkari sartuz. Sailkatze saioak oso parekatuak izan ziren, eta hartara bederatzi eskalatzaille pasatu ziren finalera, tartean **Andoni eta Bittor Esparta** anaiak, **Martin Urrutia** eta **Iñaki Arantzamendi** 'beteranoa'.

Nesketan **Zuriñe Arrue** sartu zen finalean zazpigarren marka onenarekin, eta lan ona egin zuen han, dominen lehian aritu zen. Eusleku beraren bila erori ziren bera eta beste hiru eskalatzaille, eta azkenik 2. eta 3. amaitu zutenek euslekua ukitu izanak egin zuen diferentzia. Donostiarrak (gasteiztartua) 5. amaitu zuen.

Gazte mailetan lortu ziren Espainiako Kopako lehen probako beste bi euskal dominak, larunbatean: **Irati Zabalak** Sub 20an brontzea, eta Andoni Espartak Sub18an zilarra, non Eneko Carretero 4. sailkatu zen. Dotore Sub16ko mutilak denak finalean sartuta, eta lastima maila horretako nesken finala euriagatik bertan behera geratu izana **Haizea Osés** podiumean sartzeko saioa egiten ari baitzen, baina azkenean sailkatzen saioko 6.postuarekin konforme behar.

Espainiako Kopak hiru proba izango ditu. Zaragozakoaren segidan Bartzelona ekainak 30-uztailak 1 asteburuan, eta hirugarrena Madrilén azaroak 3-4 asteburuan.



EMF-FVM